PAISAIAK (KLIMA BEROAK)

BASAMORTUAK

Idatzi testua osatzeko falta diren hitzak.

Basamortuko klimaren ezaugarri nagusia (**1**)..... da.

Tenperaturaren arabera, basamortuak (**2**)..... edo hotzak izan daitezke.

Lehenengoak (**3**)..... inguruan daude. Mota horretako basamortuetan, egunez tenperaturak oso (**4**)..... izaten dira, eta gauez bat-batean egiten dute behera. Basamortu hotzak, aldiz, (**5**)..... daude. Horrelako basamortuetan, udan tenperaturak oso (**6**)..... izaten dira egunez, baina negu luzean tenperaturek behera egiten dute.

Paisaiaren arabera, bi basamortu mota nagusi bereizten dira:

- (**7**)..... dunak daude.
- (**8**)..... , berriz, harri eta arroka estalgabeez osatuta dauden eremu zabalak dira.

Basamortuetan (**9**)..... izeneko ur-ibilguak daude, euria egiten duenean bakarrik ura eramaten dutenak.

Muturreko temperatura- eta landaredi-baldintzen ondorioz, basamortuak oso toki (**10**)..... dira bizia garatzeko; horrenbestez, ia ez da inor bizi horietan.

PAISAIA NATURALA ETA PAISAIA ERALDATUTA

Paisaia (**11**)..... deritzo gizakiek eraldatu gabeko paisaiari.

Elementu hauek baldintzatzen dute gizakiak paisaia batean edo bestean kokatzea:

- (**12**)..... : hotza, beroa, hezetasuna, etab. mugatzaileak dira gizakiak eremu horietan kokatzeko.
- (**13**)..... : biztanle gehienak eremu lauetan ta kostaldetik gertu dauden eremuetan bizi dira.

- (**14**)..... : biztanleen joera da ibaien inguruan biltzea , urak erabiltzeko.

Paisaiak (**15**)..... deritzo gizakiek natura-ingurunean egiten dituzten aldaketen emaitzari.

Mota horretako zenbait paisaia bereiz daitezke:

- Nekazaritza-jarduerek eragindako aldaketen emaitzak direnak: (**16**).....
- Hiriak eraikitzearen ondorioz sortu direnak: (**17**).....
- Industria-jardueraren ondorioz eraldatutakoak: (**18**).....
- Jarduera ekonomiko batzuen ondorioz eraldatutakoak, turismoa, adibidez: (**19**).....

KLIMA TROPIKALA ETA HORREN PAISAIAK

Klima tropikalaren ezaugarri bereizgarriak tenperaturak urte osoan (**20**)..... izatea eta prezipitazioen (**21**)..... dira. Prezipitazio gehientsuenak urteko sasoi batean pilatzen dira, eta horrek bi urtaro sortzen ditu; urtaro (**22**)..... eta urtaro hezea. Prezipitazio kopuruaren arabera, (**23**)..... eta klima tropikal hezea bereizten dira.

Ibai tropikalek emari (**24**)..... izaten dute, eurien araberakoa.

Klima tropikaleko paisaia bereizgarria (**25**)..... da. Ordoki oso zabala da, altuera handia har dezaketen (**26**)..... osatua, eta urtaroen arabera aldatzen da belar horien kolorea. Ibaiertzetan (**27**)..... sortzen da. Ekuatoretik gertu dauden eremuetan, berriz, (**28**)..... . Basamortuetatik gertu dauden eremuetan belar txikiz eta zuhaixka arantzatsuz osatutako paisaia sortzen da, hau da, (**29**)..... .

KLIMA EKUATORIALA ETA OIHANA

Adierazi zuzenak ala okerrak diren hurrengo esaldiak:

⇒ Ekuatoretik gertu dauden eremuetan hazten da oihana (……..)

⇒ Ibaiek emari irregularra dute (……..)

⇒ Oihana ordoki oso zabal bat da, altuera handia har dezaketen eta, urtaroaren arabera, kolorez aldatzen duten belarrez osatua. (……..)

⇒ Klima ekuatorialeko tenperaturak altuak dira beti, eta prezipitazioak oso ugariak. (……..)

⇒ Klima ekuatorialaren ezaugarri nagusia agortasuna da. (……..)

⇒ Ibaiak oso emaritsuak eta irregularrak dira. (……..)

⇒ Landaredia oso urria da. (……..)

⇒ Oihana baso beti berdea da, oso sarria, eta landaredak altueraren arabera mailakatzen dira bertan. (……..)

⇒ Landaredi naturala lehortera oldatzen da. (……..)

⇒ Oihana zuhaixka, belar eta sastrakaz osatuta dago. (……..)